

Zein da gure bezeroa?

Gure helburua da hiri berri bat ezagutzeko gogoia duten edo beren ametsen hiria bisitatu nahi duten bezeroak bilatzea, jarrera apurtzailea duten eta igarotzen diren tokiak suntsitu nahi dituzten pertsonak, haienzako kultura berriak ezagutzuz eta herrialde bakarrak bisitatzuz.

Batez ere, bidaia egin nahi dutela argi duen jendea bilatzen dugu: ezkondu berri diren bikoteak eta eztei-bidaiarako aukeratuko duten bidaia argi eta garbi dutenak, hiri bat bisitatu nahi duten pertsona-taldeak, joan nahi duten zalantza izpirik ez dutenak, beren ametsetako bidaia buruan duten pertsonak... Horrelako jendea bilatzen dugu eskema guztiak apurtzeko, eta konturatu daitezela haien ametsetako bidaia ez zela espero zutena, baizik eta guk haienzat aukeratu duguna, egiten diegun formularioaren bidez orientatu ondoren. Hala ere, besoak zabalik ditugu bidaia bat egin nahi duten baina adierazitako helmuga edo amets eginaraziko dien hiria aukeratzen ez dakiten pertsonentzat. Azken horiei ere formularioa egiten diegu. Aldea da ez dela espero zein izan daitekeen, eta ideia argirik ez dutenez, ez dizkiegula eskemak hausten.

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Gure bezeroen ezaugarriak oso desberdinak izan daitezke, baina bat etor daitezke. Gure bezeroen adina askotarikoa da: gazteak, helduak eta haien beharrak asetzen dituztenak. Bidaiatzeko gogoia duen jendea da lan egiten dugun bezero mota, bidaia on bat planifikatzen jartzen dugun ahalegina baloratzen dute. Gure agentziarekin bidaia kontratatzea erabakitzen duten pertsonak gustu desberdinak dituzte; horregatik, gure lana teklan ematea eta bidaiarik egokiena aurkitzea da.

